

JOJO BORDAGARAI

«Emozio, kolore eta zapore aniztasuna proposatzen dugu»

Aurkezpenik behar ez duen musikaria dugu Jojo Bordagarai, ia bizi osoa euskal kantagintzari lotuta eman baitu. Luxuzko talde baten babesean heldu da oraingoan tauletara eta, *Bahaki* izenburupean, disko ederra, eklektikoa, bidaiarako gonbitea luzatzen duena ipini digute gozagarri.

GARBINE UBEDA GOIKOETXEA

Etxekoekin taldean nahiz Ramuntxorekin bikotea osatuz, bizitza osoa euskal kantugintzari lotuta eman duzu. Oraintsu, berriz, zure banda propioa sortu duzularik, jazz munduari lotutako musikariak hautatu dituzu. Nolatan jauzi hori? Ez gara jazz taldea. Gertatzen dena da, musikariek badutela eragin hori eta oso ibiliak direla. Gitarra-jolea, esate baterako, bederratziz izan da Martinikan (Hego Amerika), eta beste urtebetez, Los Angelesen (AEB). Gainera jazz emanaldiak eskaintzen ditu piano-jolearekin batera.

2004 urtean Ramuntxo gelditu zelarrik, banituen kantu batzuk idatziak eta Philippe akordeoilariari –ordurako taldean zen gurekin– eta bioi domaia iruditzen zitzaigun dena bertan behera uztea. Hala, xerkan hasi eta musikari hauek hurbildu zitzaizkigun. Atabalaria ere inoiz edo beste gurekin aritua zen.

Beraz, nahi baduzu, Philipperen eta bion inguruan osatu da taldea. Gure artera bildu den kide bakoitza bere balioekin heldu da, bere bizipenak ekarri ditu. Neronek ere nire idatziak, nire doinuak ipini ditut. Melodiaren izpiritua azaldu diedalarik, izpiritu hori bereganatzen eta errespetatzen saiatu dira, baina haien esperientziak bazter utzi gabe, melodiaren izpiritua beren ukituz aberastuz.

Zuk ez diezu baldintzarik jarri.

Konfiantza egiten diet. Badakit gauzak ez dituztela nolana hartzten, saiatzen direla izpiritu hori gordetzen, kantuari fidel izaten. Haien erronka ere badelako errespetu hori.

Musikari handiak dira, baina aski umilak, euren burua kantuaren zerbitzurako jartzeko.



ELKAR

Bordagarai taldea.
Ezker-eskuin eta goitik behera: Eric Otxandaburu, Marc Tambourineguy, Eric Ruiz, Vincent Thomas, Jojo Bordagarai, eta Philippe de Ezcurra.

Eta jokamolde horixe bera dut neronek ere: kantuaren mesederako gitarrak leku gehiago hartu behar badu, har dezala. Ez da Jojo aitzinean eta besteak gibelean, talde-lana egiten dugu guztiok. Deitura dugu atxiki, baina haiek hala nahi izan dutelako.

Luxuzko taldea da, zernahi gisaz, apustu handia eskatzen duena. Mantentzea ez da erraza izango...

Motibatzen du, zalantzarik gabe. Funtzionatzeko manierak ere arras aldatu dira. Orain kasik notaz nota aritzen gara lanean. Kantua deskubritzen dutelarik, nondik norakoak

ulertu direlarik sargenta bezala hasten gara, puntuz puntu, notaz nota, biziki xeheki. Nire kantatzeko modua ere aldatu dut, zintzo-zintzo jarri behar izaten dut besteekin batera... Desafio polita da, diziplina handia eskatzen duena.

Zer erronka jarri diozue zuen buruari?

Lehenik eta behin, atsegin hartzea eta plazer hori partekatzea. Musika ona eginez eta proposatuz plazer hartzen badugu, jendeek ere ber plazer hartuko dutela espero dugu. Halaber, nahi genuke gero kontzertuetan aritu, horretarako egin baitugu diskoa.

Nahi nituzke, gainera, kantu desberdinak idatzi; poza, tristezia, festa... emozio panel guzia abestietan pasatu eta horiek denak taula gainean jarri, gai desberdinak tratatuz, bistan da... Gorrotoa da sorta horretatik kanpo uzten dudana gai bakarra.

Oso disko landua plazaratu duzue, molde eta zapore desberdinak batzen dituen. Bidaiarako gonbitea luzatzen du ezinbestean.

Zoritzarrez ez naiz fisikoki oso urrun ibilia. Haurrak tarteko, ez da beti erraza. Taldekideek eman didate, justuki, bidaien egiteko aukera hori, nor bere zaporeekin eta doinuekin heldu baita. Hala, Europa Ekialdea ezagutzeko parada ukan dut Philipperen bidez, hango izpirituaz jabetzeko aukera. Hura han izan baitzen formatzen, akordeoi klasikoa lantzen. Hortik datorkigu, nahi baduzu, Emir Kusturica-ren eragina, musika zingaroaren ukitua.

Bidaia egiteko beste modu bat da, nahi baduzu, musika bidezko bidaia birtuala... noizbait fisikoki bidaiatzea ere lortuko dudana esperantzan.

Bestalde, diskoa saltoka bezala doa: melodia apalek erritmo biziei ematen diete bidea, doinu alaiek abesti malenkoniatsuei...

Nahita eginga da. Puzzle moduko bat proposatzea izan da gure asmoa; emozio, kolore eta zapore aniztasuna nabarmenduko duen puzzlea konposatzea.

Diskoa grabatu aurretik ideia jakin bat eramango zenuten grabalekura. Espero bezala gauzatu al dira zuen asmoak?

Aski seriooki prestatu ginen horretarako eta kontent gara eginiko lanaz. Erran behar da Elkar diskoetxeak laguntza paregabea eman digula, konfiantza osoa egin digula eta bihotzez eskertzen diegu.

Horrelako lanak ez dira ustekabeen biribiltzen. Bada aintz gaitasunen metaketa. Gu pozik gara sektore desberdin horien elkarla-

nari buruz eta nahi genuke diskoak harrera ona izan dezan, baina ez dago gure esku. Hori jendeek dute deliberatuko.

Kolaborazioen artean, Itxaro Bordaren abesti bat aurkitzen da. Ez da lehen aldia idazle hau kontuan hartzen duzuna. Zer estimatzen diozu gehien?

Amikuztarra izaki, aspaldi ezagutzen dut Itxaro, eskolatik. Bide urratzaile bat da, karisma handikoa, gauzak bururaino eramaten dituena eta, jakina, olerki ederrak idazten dituena. Ezaugarri apartak, denak.

Ez geldi edo diskoan sartu dugun kantua biziki maite dut, oso motza baita, eta beste hitzekin konparatuz, arrunt bestelakoa, bai formaren aldetik, bai gaiaren aldetik ere. Kantu zerrendan aniztasuna izan dadin, hein batean kanpoko iturrietara jotzea maite dugu.

“Batuetan ezagutzen ditudan
pertsonek bizitzatik abiatzen naiz,
bestetan asmatzen dut osoki,
baina beti bada norbaiten eragina
nire letretan”

Etxahun-Iruri handiari ere egin diozue tarte. Zergatik hautatu diozue justuki *Laida pilotaria*, doinuagatik ala kontatzen duenagatik?

Maite ditut kantu herrikoiak, bereziki horrelakoak. Xiberutarren kultura biziki sartua dugu etxean, aitaren aldetik. Betidanik miretsi izan dugu Etxahun, ikono bat da.

Dena den, kantu hori ez dut taldera nik ekarri, baizik eta Philippek. Euskal kirol horri arrunt atxikia den familia batean sortua da eta biziki maite du.

Beraz, eta zure galderari erantzunez, bi arrazoiak izan dira tartean.

Noiz, nola, non sortzen dituzu kantuak?

Ez da momenturik. Batuetan besterik gabe heltzen zaizkit. Beti izaten dut paper mutur bat ideiak apuntatzeko, edota tresna tikirene bat aireñoak grabatzeko. Gero, grabatutakoa etxean berriz hartzen dut eta lantzen dut. Haurrak etzanak direlarik, halere, errazago izaten da beti, batez ere ideia horien biribiltzea.

Gaiak, berriz, eguneroko bizitzari lotuak dira. Batuetan ezagutzen ditudan pertsonen bizitzatik abiatzen naiz, bestetan asmatzen dut osoki, baina beti bada pertsonaren baten eragina nire letretan. Maite ditut jendeak, maite dut jendeen obserbatzea.

Nori oparituko zenioke *Bahaki*?

Ez dakit... Euskal letrak maite dituenari, euskarari atxikia den edozeini, baina bereziki euskara ikasten ari denari. Euskalduntzen ari denarentzat badut sekulako errespetua, ez baita partida erraza eta behar zaie zerbait eman, hazi behar dira nonbaitetik, liburuetatik, musikatik... Halako jendea eskaini nahiko nioke nik, disko hau. ■